

HEGOALDEKO LAU HIRIBURUETAN ESTREINATUKO DU EOSEK POEMA SINFONIKOA JUANJO MENAREN ZUZENDARITZAPEAN

Araguesen musikak eta Atxagaren poesiak bat egin dute 'Vita' konposizioan

■ Bernardo Atxagaren poemak tartekatuz, Tomas Araguesen poema sinfonikoa estreinatuko du datorren astean EOsek

■ *Vita* Araguesen bizi inpresioetatik sortu da, eta Atxagak, inpresio horiek egilearen ahotatik entzun ondoren egokitu ditu poematara

■ Biek adierazi dutenez, baliteke aurrerago poemak kantu bihurtu eta koro eta orkestrarako proiektu bat egitea


Amagoia Mujika /Donostia

1998KO AZAROAN eskatu zion Euskadiko Orkestra Sinfonikoak enkarguzko obra bat konposatzeko. Garai hartan, mugimendu bakoitzak bibliako salmo bat irudikatzen duen sinfonia konposatzen ari zen. Orkestrak eginko proposamena oso erakargarria zen, Bernardo Atxagak musikari egokitutako poema batzuk sartzeko ideia baitzegoen tartean. Beraz, enkarguzko lanari ekin zion, aurreko lana alde batera utzita. Hala ere, sinfonia hartako espiritua islatu nahi izan zuen obra berrian.

Idea horretatik abiatuta osatuz joan zen *Vita* poema sinfonikoa, hitzak eta musika nahastu gabe tartekatuz eginko sinfonia: «Formalki batzuentzat zaharkitua egon daitekeen egitura da poema sinfonikoa, baina bizitzeta tokatzen zaidan gaurko unean kokatu dut egitura».

Bizitzari errepasoa eginez ekin zion lanari, eta sentsazioak adieraziz sortuz joan zitzaizkion notak eta erritmoak; burutazio horiek helarazi zizkion Bernardo Atxagari.

Atxagak, berriz, duela urte batzuetatik, buruan zuen musikariekin lan egiteko aukera: «Duela 15 bat urte musika klasikoa entzuten



GARI GARAIALDE

Bernardo Atxaga eta Tomas Aragues, atzo, *Vita* lanaren aurkezpenean.

hasi nintzen, mundu horretan sartzen, esperientzia pertsonalaren bitartez. Duela urte gutxi batzuk pentsatu nuen esperientzia nahikoa nuela musikarien lanetan parte hartzeko. Araguesen lanari buruz hitz egin zidatenean, pentsatu nuen aukera ona zela arima gogortuarekin ez geratzeko; modu bakarra zela beste mundu batzuetan dagoen jendearekin lan egite-

ko, probatzeko, eta behar hori banuen».

Araguesekin solasean aritu ondoren, etxera bidean lehen poemarekin pentsatzen hasi zen: «*Bizitzak ez du etsitzen ez bada muga latzetan* poema egokia iruditu zaitzaidan. Bigarren poema *Adanek gripa du* laneko egokitapena da, laburragoa. *Adan eta bizitza* izena jarri nion. Hirugarren poema, berriz, estuki

lotu nuen markatu zizkidaten denborekin».

Vita-ren jarduna

Andoni Aleman arduratuko da Atxagaren poemak orkestrako musikarien alboan agertokian adierazten.

Vita-k, musika isilean dela, lehen poema du abiapuntu. Poema amaieran dagoela, sinfoniari hasiera emango dio

esaldi lotsati batek. Musikak bakarkako ibilbideari ekingo dio ondoren, eta erdialdean, berriz ere esaldi lotsatia ageri denean, bigarren poemari lekua egingo dio, biak batera joanez. Musikak bere diskurtsoarekin jarraituko du, eta gora puntuak egiten dituenen, hazi eta hazi lehertzen denean, barealdiarekin batera, musika mutu, azken poema entzun ahal izango da.

Esperientzia hau hasiera baino ez dela adierazi dute bi maisu horiek: «Espero dut zaharregia izan baino lehen elkarren artean zerbait kantatua izateko sortzea», dio Araguesek. Atxagak, berriz, hauze: «Beste modu batera idazteko aukera ematen du, eta gustatuko litzaidake musikariekin nola lan egin daitekeen ezagutzea».

Vita lanaz gain, Schubert eta Beethovenen sinfonia bat entzungai izango dira EOSen eskutik, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Menak adierazi duenez, «bi maisu horien lanak ongi datoz Araguesen doinuarekin batera eskaintzeko».

Apirilaren 3an eta 4an Donostiako Kursalean izango da obra hori entzuteko aukera; apirilaren 5ean Bilboko Arriagan, 6an Iruñeko Gaiarren, eta 7an Gasteizko Antzoki Zaharrean.

Tomas Aragues: «Harrigarria da emandako azalpenekin Atxagak sortu duena»

■ Atxagari helarazi behar zizkion burutazioak Araguesek, egin behar zuenari buruz ideario bat egiteko eskatu baitzioten. Hauek dira idatzitako burutazioak: «Une honetan 65 urte egin behar ditut, eta jubilazio zoriontsura noa, kontserbatorioari lanak utzita. Burrura datorkidan ideia hauze da: zer da helduaroan gizon batek isla dezakeena bere bi-

zitzari buruz? Zer, helduaro sakonago batera sartzeaz dagoen?» Bere bizitzari errepasoa egin zion mentalki, eta istorio bat kontatu nahi izan gabe inspirazioa nondik etorri zitzaion azaltzen du; «bizitzako gertaeretatik, maite duen jendearengandik, nire txakurtxoaren barne. Gauza horiek denak batuta, pentsatu dut kontrapuntuaren apo-

teosian. Esaldi nagusiarekin zerikusirik ez duten bi esaldi agertzen dira. Horiek izan daitezke bizitzan anekdota diren gertaerak». Ideia horiek eta beste hainbat Bernardori idatzi zizkion, eta iaiz egun batean hitzordua ezarri zuten solasaldirako. «Bete-betean asmatu du, harrigarria da nik emandako azalpenekin Atxagak sortu duena».

Bernardo Atxaga: «Poema egiteko jakin behar nuen zer zegoen musikaren azpian»

■ Araguesek idatziz bidali zizkionak baino gehiago behar zuen Atxagak bere lanerako: «Zergatik egin zuen *Vita*, zer nolako burutazioak izan zituenez ez nuen horrekin nahikoa, eta berarekin hitz egin nahi nuela esan nion. Idatziz esaten baita buruz, arrazoiz pentsatzen dena. Musikari batentzat poema bat egiteko, jakin behar nuen zer dagoen

bere musikaren azpian, hitzez adierazi ez duen hori. Berarekin hitz egin ondoren, bere asmoak jakinda alde batetik, eta berarekin izandako elkarrizketan hartan sumatu nituenekin bestetik, sortu eta egokitu nituen poemak». Jubilazioaren aurrean zuen jarrera garrantzitsua izan zen: «Jende askorentzat edo gizartearen arabera, bizitzaren emai-
era

puntu bat izan daiteke. Berak, ordea, abiapuntu bezala hartzen du. Iruditzen zait azpimarratu nahi zuela bizitza beti hasi egiten dela». «Bizitza latza da askotan, askotan iluna, baina bizitza da handiena, Bertolt Brechtek esango lukeen bezala. Horrela egin dugu lan. Berak utzitako isiluneekin eta gogoarekin jokatu dut».